

Gaur egungo auzolana nolakoa den jakiteko galdetegia egin dute

Tolomendik eskualdeko herrietan zabalduko du, eta bilketak etorkizuneko egitasmoak lantzen lagunduko diela azaldu dute // **6**

Josu Artolak Espainiako Kopa du jokoan asteburuan

Pilotu amezketarrak hard enduroko azken proba du asteburuan, eta zortzigarren egitea lortzen badu Kopa irabaziko luke // **7**

«Adinekoen istorioak entzun eta jasotzera animatzen dut»

KOLDO ALIJOSTES
IRAKASLEA

Familiako testigantzekin osatutako 'Bizitzak' lana aurkeztuko du gaur // **3**

Maila ona eman du Tolosaldea IKT-k Espainiako Txapelketan

Hamar igerilarik parte hartu dute, eta Nahia Garridok marka hobetzea lortu du // **7**



JOSETXO ARANTZABAL

«Normalizazio txiki batetik ere urrun gaude»

NEKANE SAN MIGEL MAGISTRATUA


1993. urtean Tolosan lehen epaiketa egin zuen euskaraz; euskaldunek ezer gutxi egin dutela epaitegietan hizkuntza eskubideen alde dio; Euskararen Egunaren harira, hamaika ekitaldi antolatu dituzte eskualdeko herrietan // **4-5**

gorriti | martínez

San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa

Tel: 943 650 192

www.gorritimartinez.com



PVC



ALUMINIOA



EGURRA

Ekonomia zirkularra ardatz duen eskultura egin dute Peñascaleko ikasleek

Lehengaia, hondakinak, kontsumoa, berrerabilpena, konponketa edota birziklatzea hartu dituzte kontuan 'Ekonomia zirkularraren 7 oinarriak' eskulturarekin

Erredakzioa Tolosa

Gipuzkoako Lanbide Heziketako 13 ikastetxetako ikasleek eskulturak egin dituzte material birziklatuak erabilia, hondakinen prebentziorako eta kudeaketa egokirako deia eginaz. Tolosako Peñascal Kooperatibak parte hartu du ekimenean eta Lehiberrin jarri dute *Ekonomia zirkularraren 7 oinarriak* eskultura.

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea dela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen sailak Ekonomia Zirkularra Modelatuz eskulturak sortzeko programaren barruan egin dute lana Peñascal Kooperatibako ikasleek. «Lehengaia eta hondakinak, diseinua, ekoizpena eta berrekoizpena, banaketa, kontsumoa, berrerabilpena eta konponketa, jasotzea eta birziklatzea dira kontuan hartu ditugun oinarriak. Oinarri hauek bata besteari lotuta daude, bat eroriz gero denak atzetik doaz, eta bat altxatzeko beste guztiak altxa behar ditugu. Ideia hau landu dugure eskulturan, guk lantzen dugun materiala eta prozesuaren



Peñascaleko ikasleak eta irakaslea, eskulturaren aldamenen. ATARIA

bitartez, era erraz batean irudikatuta, oinarritzko elementuak erabiliz, inolako artifizio edo apainketarik gabe. Garrantzia kontzeptuan datza», esan dute Peñascaleko kideek.

Ekonomia Zirkularra Modelatuz programa hirugarren urtez egin dute. Lanbide Heziketako gazteek hondakinen prebentziorako eta kudeaketa egokirako egiten dituzten jarduerak islatu

nahi dituztela esan du aldundiak. «Helburua ikasleak sentibilizatu eta filosofia hori zabaltzea da». Iragan astean egin zuten ekitaldia ikastetxeetako ordezkariekin, eta Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatuak esan zuen funtsezkoa dela gazteei «lekua eta ahotsa ematea» ekonomia zirkularrari eta garapen jasangarriari buruz duten ikuspegia azaldu dezaten.



EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO

Apattaerreka Industrialdearen sarreran zerbitzuen bulego eraikina dago, eta bertan ekintzaileen enpresa berritzaileak finkatu daitezkeen laguntzeko hitzarmena berretsi dute Tailsak eta Tolosaldea Garatzenek. Igor Zapirain Ibarrako alkate eta Tailsako lehendakariak eta Iker Urruzola Zizurkilgo alkate eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak izenpetu dute hiru urteko indarraldia izango duen hitzarmena. Interesatuek Tolosaldea Garatzenen egin beharko dute eskaera. ATARIA

Gipuzkoako idazkari nagusi izendatu dute Jose Ignacio Asensio

TOLOSA // Jose Ignacio Asensio tolosarra Gipuzkoako sozialisten idazkari nagusi izendatu dute. Ingurumen diputatuak Eneko Anduezen lekukoa hartu du. Nazionalismoaren aurrean sozialismoa aldarrikatu du alternatiba moduan, «egonkortasuna eta elkarbizitzaren bermea delako». Halaber, esan du PSE «euskal ezkerria eta ezker baliagarria» dela, eta prest dagoela gobernatzeko, «ideiak, ilusioa, gogoia eta pertsonak» baititu.

Zigor Urkiagaren hitzaldia izango da bihar, Batzokian

TOLOSA // Zigor Urkiaga Eusko Jaurlaritzako proiektu estrategikoen eta industria administrazioaren zuzendariaren hitzaldia izango da bihar, Tolosako Batzokian, 19:30ean hasita. Euskal industriaren eta enpresen erronkak asko dira eta horiek aztertzeke prestatu dute *Batzokiko iluntzeak* hitzaldi sortaren barruan kokatzen den ekitaldia. «Enpresa sendoak, lehiakorrak eta lurraldean errotoak bultzatzea beharrezkoa da», esan dute.

GUTUNA

Salaketa publikoa egin nahi dut

Urriaren 13an, Tolosako Trianguloa plazan, 21:30ak inguruan gertatutakoak publikoki salatu nahi ditut. Denbora asko igaro behar izan da neure burua urrats hau emateko indar nahikoarekin ikusteko. Ezegonkortasun emozionala, ezintasuneko, tristeziako, antsietateko, amorruko eta frustrazioko asteak izan dira.

Egun horretan, nire semea bizikletan pasatzen ari zen Trianguloa plazatik, bi ertzainek modu ez oso onean gelditu, eta identifikatzeko eskatu ziotenean. Nire semea tratamenduan dago, behar desberdinak eta bereziak dituelako. Agenteen jarrera oso ol-

darkorra eta agintzailea izan zen une oro. Semea jo eta lurrera bota zuten, betaurrekoak ere botaz. Belaunak bizkar gainean jarri zituzten eskuburdinak jartzeko, eta errefortzuak eskatu zituzten arriskurik ez zekarren egoera bat kontrolatzeko. Edozein profesionalak patxadaz eta indarra erabili gabe bideratu zezakeen gertakari txiki bat, atxiloketa bortitz batean bihurtu zuten. Pertsona horrek ez zuen inongo momentutan arriskurik suposatu inorentzat, ez zuen armarik, ez zuen mehatxurik egin, ezertxo ere ez.

Erasoak iraun zuen bitartean, han zeuden hainbat pertsonak nire semea bakean uzteko eskatu zieten agenteei, nahikoa zela, lasai uzteko eta askatzeko. Tolosan

oso ezaguna eta estimatua den pertsona bat handik igarotzen ari zen, eta egoera zein dramatikoak zen ikusita —nire semea une hartan antsietate krisi batean zegoen—, bitartekari lanak egiten saiatu zen lasai utz zezaten, NANA ere eskainiz eta nire semeaz arduratzeko prest agertuz. Agenteetako batek harrokeriaz eta modu txarrez erretiratzeko erantzun zion. Gizon jator honek 90 urte inguru ditu eta bera ere urduri jartzen hasi zela ikusita, alabak handik eraman zuen.

Amesgaiztoa ez zen hor amaitu. Eskuburdinak jarrita eraman zuten komisariara eta biluzik eduki zuten ziega batean. Umiliatuta eta irainduta sentitu zen. Hiru aldiz eskaini zioten agenteei eraso egiteagatik bere burua

erruduntzat onartzen zuen dokumentu bat sinatzea, horietako bat ofiziozko abokatu baten aurrean. Uko egin zion abokatuari, bere eskubideak ez zituela defendatzen ikusi baitzuen, poliziekin batera dokumentua sina zezan presionatu baitzuen, baina nire semeak ez zuen sinatu.

Modu txarrean askatu zuten goizeko ordu bietan.

Giza eskubideen adierazpen unibertsalaren bosgarren artikulua hitzez hitz adierazten du inork ez duela tratatu krudel, anker edo iraingarri jasango.

Nola liteke Tolosako erdigunean, udazkeneko ilunabar atsegin batean, plazako eserlekuetan, kafetegiko terrazan eserita dauden pertsonen aurrean, gure segurtasunaz arduratzen diren perso-

nek, gure kaleetako bizikidetzaren ustezko bermatzaileek, modu probokatzaile, neurrigabe, harroputz eta lotsagabeen jokatzea? Nola, noiz eta nork konponduko du egin diguten doako kalte hori guztia?

Gure eskubideak errespetatu ko dituen, pertsona gisa errespetatuko gaituen eta enpatiaz, sentibiltatez eta proportzionaltasunez jokatu ko duen polizia bat nahi eta eskatzen dugu.


Ez dut salaketa hau amaitu nahi eskerrak eman gabe egun hartan pertsona askok nire semearekiko erakutsi zuten jarreragatik, eta aste hauetan zehar zuen elkartasuna eta maitasuna adierazteko hurbildu zarenengatik. Eskerrik asko bihotzez

Mila Canseco Nieto Tolosa

«Jendea animatu nahi dut adinekoen istorioak jasotzera»

KOLDO ALIJOSTES BORDAGARAI IRAKASLEA

Bere familian jasotako testigantzekin osatu du 'Bizitzak' liburua; «kontaketa honen guztiaren ardatza gure aita eta amaren bizitza da, beraiek dira protagonista nagusi», esan du amezketarrak



Joxemi Saizar Amezketak

Koldo Alijostes Bordagarai (Amezketak, 1962) irakaslea da eta asko daki euskal mitologiari buruz; liburu bat idatzi du eta webgune bat ere badu (*Amaroa.eus*). Duela hilabete batzuk bere familian jasotako testigantzekin *Bizitzak* izeneko lana argitaratu du.

«Etxebarrietaren heriotzarena tartean ez balitz zalantza egiten dut liburua argitaratuko ote zen»

«Familia abertzalea dut eta gure historiaren gertaera garrantzitsuak bizitzea egokitu zitzaien»

Berriki bere jaioterrian aurkeztu zuen eta gaur bere aitaren herrian, Ibarra, aurkeztuko du, kultur etxean 19:00etan. Familiako pasarte horien bidez, Euskal Herriko historiaren puzzleko zati esanguratsu batzuk ere islatu ditu bere ikuspegitik, gehienbat Tolosaldean kokatuta.

Nola eman duzu sukaldean entzundako istorioak liburuan jartzeko pausoa?

Aita kontalari ona nuen eta pena ematen zidan bere kontakizunak galtzeak. Hori dela eta, amari eta berari istorio horiek grabatu nizkien eta gurasoen

urrezko ezteietarako liburuxka batean bildu nituen, opari gisa. Hiru ale egin nituen: gurasoentzat, anaiarentzat eta niretzat. Unean bertan baino, hurrengo belaunaldiei begira egin nuen. Asun Garikano lagun tolosarrari utzi nion bere aitari erakutsi eta nire aita ezagutzen ote zuen galdetzeko. Baina berak eta senarrak (Bernardo Atxaga idazlea) irakurri, gustatu eta liburua idaztera animatu eta lagundu ninduten.

Horrek lan gehigarria eman-go zizun.

Bai, Asunek esan zidan: «Idazleak lan egin behar du irakurleak lanik ez egiteko, alegia, erraz ulertzeko». Nik gurasoek irakurtezaten idatzi nuen, irakurterrazza izaten saiatu naiz. Interesik ez zuten gauza batzuk kendu ditut eta dokumentazioa erantsi dut.

Zein pertsonatan idatzi duzu?

Hiru plano desberdin daude liburuan. Alde batetik, gurasoen testigantzak lehen pertsonan

idatzi ditut, bizitasun eta indarra mantentzeko. Ondoren, dokumentazio lana egin nuen liburu osatu ahal izateko, datuak eta abar. Eta hori hiru garren pertsonan idatzi dut. Azkenik, garai haietako nire inpresioak ere jaso ditut liburuan, ume baten begietatik begiratu-ta. Eta horiek ere lehen pertsonan idatzi ditut.

Familia barruko kontakizunak direla aipatzen duzu. Baina liburuari beste dimentsio bat ematen dioten istorioak ere badira. Txabi Etxebarrietaren heriotza, besteak beste.

Bai, etxean beti entzundako zerbait zen, osaba bertan zegelako gertatu zenean, baina gero konturatu naiz Euskal Herriko historian une garrantzitsua dela, ETak hildako lehen guardia zibila eta Guardia Zibilak hildako lehen etakidea direlako protagonistak. Gainera bertsio desberdina da, orain arte entzundakoekin konparatuta. Hori tartean ez balitz zalantza

egiten dut liburua argitaratuko ote zen.

Beraz, historia familiarretik euskal historiara pasatu zara.

Bai, familia abertzalea dut eta gure historiaren gertaera garrantzitsuak bizitzea egokitu zitzaien guraso eta osaba-izebei: gerra, kartzela, langile batailoia, Francoren kontrako borroka, atxilotetak, erbestea, ikastolen sorrera...

Gurasoen aurreko belaunaldira atzerapausoa eginez, baserriko bizimodua eta kale-rako pausoa azaltzen duzu liburuan.

Bizimodu gogorra benetan: eskolatu gabe, maiorazgoa, emaztea hil eta haren ahizparekin ezkondu, bi aldiz alargundu, kaxako umeak hartu, baserria galdu, morroiak, baserria utzi eta lantegietarako pausoa...

Belaunaldi berrientzat harri-garria izango da.

Iruditzen zait belaunaldien arteko transmisio hori gaizki ari garela egiten. Horretarako balio izatea espero dut. Eta jende guztia animatu nahi dut bere inguruko adinekoen istorioak entzun eta jasotzera. Ez liburu bat egiteko helburuarekin, garai baten bizimodu eta testigantza horiek jasota gelditu daitezela bai-zik.

Geografia ere oso gertukoa da: Ibarra, Amezketak, Tolosa...

Bai, dena hemen inguruan gertatzen da. Hemengo jendearentzat eta batez ere, nire adin ingurukoentzat, oso gauza ezagunak eta gertukoak izango dira, baina Bizkaian ere esan didate aipatzen den garaian antzeko gauzak gertatu zirela hango herri txikietan.



zozketak

Atarikideentzat bi sarrera ditugu



'Gure bertso zirkua' helduentzako saiorako 2 sarrera.

Larunbata, abenduak 11, 18:00h.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus

IRAGARKI LABURRAK

Salgai

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak salgai. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

Sagarak. Bidania-Goiatzen eskuz bildutako errezil sagarra salgai. Deitu 652 7187 51 telefono zenbakira.

Alokagai

Etxebizitza. Etxebizitza bat alokatzen da Tolosako Alde Zaharrean kokatuta. Altzariak ditu, eta guztiz hornituta dago. Interesatuak deitu dezatela ondorengo telefono zenbakietara: 677 000 005 edo 667 320 911.

Euskarak merezi duelako

Ostiralean ospatuko da Euskararen Nazioarteko Eguna eta ekitaldi asko daude aukeran; Bidania-Goiatz Uemako kide egin da eta Euskaltzaindiko urgazle berrien artean bi tolosar daude

Erredakzioa Tolosa

Abenduaren 3a egutegian gorritz borobildutako eguna da, Euskararen Nazioarteko Eguna. Baina euskara egunero zaindu eta erabili behar da. Tolosaldeko ikastetxe, udal eta eragileak horren jakitun dira, eta abenduaren 3aren bueltan hainbat ekitaldi eta emanaldi antolatu dituzte.

Dena den, urte guztian zehar zaindu behar da euskara eta bide horretan pauso garrantzitsua emango du Bidania-Goiazko Udalak, Uemako kide izatea erabaki baitu.

Azkenaldian eskualdeko hainbat udalek erabaki dute Uemako kide izatea: Alkizak, Amasa-Villabonak, Zizurkilek, El-

duainek, azaroaren 11n Ibarrek, eta Bidania-Goiatz izan da azkena. Azken hau gehituta, Tolosaldeko 21 udalerri dira mankomunitateko kide. Abenduaren 18an du Uemak batzar nagusia, eta batzarkideek orduan aztertuko dituzte herri berrien eskaerak.

Bidaia-Goiatz gehituta, 93 udalerri izango dira Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide.

DATU SOZIOLOGIKOAK

Datu soziolinguistikoei dagokienez, euskaldunen indizea %87,65 da Bidania-Goiatzen, baina beheranzkoa da joera, beste arnasgune askotan bezala. Etxeko erabileraren beheranz-

koak ere kezkatzen du udala, eta herritarrak kontzientziatzeko eta Uemarekin zein Tolosaldeko beste udalerriekin batera hizkuntza politikan eragiteko asmoz hartu du erabakia.

Agurtzane Zelaia alkatearen arabera, «naturaltasunez» hartu dute erabakia: «Uemako kide izatea hainbat legealditan landutako gaia da, baina orain arte ez da pauso hori eman. Agian, momentu horietan ez zen beharrezkoa ikusiko, baina iritsi da eguna, eta naturaltasunez hartu dugu erabakia. Momentu hau ere gakoa dela uste dugu, erabiler eta ezagutza beherantz doaz, eta hori gora egiteko baliabideak beharrezkoak ditugu. Helburu honetan lankidetzan



2019ko Euskararen Eguneko artxiboko irudia. A. IMAZ

aritzea ezinbestekoa dela pentsatzen dugu».

Bestalde, Euskaltzaindiak 19 urgazle eta 26 ohorezko berri hautatu ditu, eta hainbat izen ospetsu daude zerrendan, tartean dira Tolosako Kike Amonarriz hizkuntzalaria eta Asun Garikano itzultzailea. Gizonezkoak 29 dira, eta emakumezkoak 16.

Zehazki, ostiralean onartu zituen Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle eta ohorezko be-

rrien zerrendak, eta atzo kalera-tu zituen. Iruñeko udaletxean egin zuten Osoko bilkura.

Urgazleen kasuan ez dira Euskal Herri osoko pertsonak izendatu, Gipuzkoakoak, Ipar Euskal Herrikoak eta Bizkaikoak soilik baizik; baita Euskal Herritik kanpoko batzuk ere. Arabakoak 2015ean izendatu zituzten, eta Nafarroakoak 2016an. Azken ohorezkoak, berriz, 2018an hautatu zituzten.

EGITARAUAK

Tolosa

Gaur, abenduak 1. Euskararen Historia Soziala Tolosaldean: 1936-gaur egunikerketaren aurkezpena Haritz Azurmendiren eskutik, 18:30ean udaletxeko batzar aretoan.

Bihar, abenduak 2. Tolosaldepediaren lantegia: Euskarari buruzko eza-gutza Wikipediara!, 17:00etan kultur etxean.

Abenduak 3. Jon Plazaolaren Irabazi bakarriketa saioa, 20:30ean Leidor antzokian, bonutik kanpo.

Ibarra

Gaur, abenduak 1. Koldo Alijostenen Bizitzak liburuen aurkezpena

19:00etan, kultur etxean (*irakurri elkarrizketa 3. orrian).

Bihar, abenduak 2. Nola eragin seme-alaben hizkuntza ohituretan? hitzaldia, 17:00etan kultur etxean. Izena ematea kultur etxean (943 67 03 99).

Irura

Bihar, abenduak 2. 18:40ean Mikel Martinezen *Tabernaria*, instrukzioak botatzek ondo bat kañabakarrizketa Trinkete tabernan.

Berrobi

Abenduak 3. 17:00etan altxorren bila, plazan; 18:00etan txokolate be-roa banatuko dute; eta 19:00etan bertso poteoa Unai Muñoz eta An-

der Lizarralde bertsolariekin eta trikitilariak alaituta.

Larraul

Abenduak 3. *Pixipost eta opari emailak* filma liburutegian, 18:00etan:

Ikaztegieta

Abenduak 3. Euskara Tolosaldean: kartografia bat hitzaldia Garikoitz Goikoetxearen eskutik, 18:00etan erabileran anitzeko gelan. Jarraian mokadutxo bat hartuz solasaldia.

Berastegi

Abenduak 3. Egun osoan euskal musika, eta 19:00etan euskararen eguneko pintxo potea egingo dute.

Bidania-Goiatz

Abenduak 3. Kantu jira jolastokitik irtenda, 18:00etan. Goiatzera igoko dira eta ondoren, Bidaniara jaitsiz amaituko dute kantu jira.

Alegia

Abenduak 3. *Zutik* filma haurrentzat, 18:00etan; eta 22:00etan Ane filma (sarreak 3 euro). Sarrerak kultur etxean erosi daitezke.

Alkiza

Abenduak 3. *Luze edo motz*, 18:30etik aurrera, kultur etxean.

Altzo

Abenduak 3. Euskara-Natura-Fe-

minismoa txirikordatz hitzaldia, 19:00etan Batzarremuñon. Lorea Agirre eta Iñaki Sanz-Azkue izango dira hizlariak eta Aner Peritz eta Maialen Akizu bertsolariak.

Lizartza

Abenduak 3. Bertso poteoa Oihana Iguaran eta Haritz Mujika bertsolariekin eta Ane Urbizu eta Manu Gaigne musikariek, 19:30ean ostatuan,

Aduna

Abenduak 3. 14:30ean altxorren bila eta 19:00etan *Egunkaria* auzia lantzen duen *Paperezko* hegoak dokumentalaren emanaldia, kultur aretoan.



RAFA GORROTXATEGIEN ARTISAU TURROIAK

943 89 03 06 | www.rafagorrotxategi.eus





Tolosan salgai:

Rafa Gorrotxategi Obradorea:
Usabal Poligonoa, 14

Denda:
Korreo Kalea, 17
(Malumbres jostun denda)

«Ezer gutxi egin dugu epaitegietan gure hizkuntza eskubideen alde»

NEKANE SAN MIGEL BERGARETXE
MAGISTRATUA

1993an, Tolosan egin zuen lehen epaiketa euskaraz; «garrantzitsua» izan zela dio, baina gerora, eremu horretan euskara izaten ari den presentzia «oso txikia» dela azpimarratu du

J. Artutxa Dorronsoro

1976an abokatu lanean hasi, eta gero, Galizian eta Tolosan epaile jardun zuen Nekane San Migelek (Arrasate, 1953). Gaur egun, Bizkaiko Lurralde Auzitegiko magistratua da. 1993an baserritar euskaldun baten kasua ebatzi zuen Tolosan, euskaraz egin zen lehen epaiketan.

Nola gogoratzen dituzu Tolosako urte haiek?

Tolosara heldu eta lehen egunean, lehendik ezarritako eginbideekin egin nuen topo. Orduan, gaur egun bezala, modu askotako epaiketak zeuden; ahozkoa edo klasikoa zen ezagunena. Arlo zibilean, ordea, diru eskaerak, ezkontza banaketak edota terreno kontuak kokatzen ziren. Horietan, partaide edo lekukoen adierazpenak ahoz ematen ziren, esandakoa idatziz jasotzen bazen ere.

Tolosan egon nintzenean, izapide ugari egiten nituen euskaraz, baina gaztelaniaz dokumentatzen ziren. Izan ere, transkripzioak funtzionarioek egiten zituzten, eta euskaldunak izaten ziren, baina alfabetatu gabeak. Nik entzuten nuenagatik, euskara zen nagusi Tolosako kaleetan. Epaitegian, ordea, gaztelania nagusitzen zen, eta iruditzen zait oraindik ere horrela dela.

Zergatik egin zen epaiketa hura euskaraz?

Bidezkoa zelako. Beti izan naiz emakume praktikoa. Hortaz, pertsona jakin batek bere hizkuntzan lasai hitz egiteko aukera izanez gero, nire aldetik inoiz ez da arazorik egongo. Gainera, inork ez zuen eragozpenik jarri, ezta idazkariak ere, ez baitzen inoren eskubiderik urratzen horrela. Idazkariak ulertzen zuten,

baina ez zekiten idazten, eta beraz, gaztelaniaz idazten zuten bertan entzuten zutena.

Baserritar euskaldun peto hura aurrean nuenean, «nola zuzenduko natzaio gaztelaniaz?», galdetzen nion neroni. EAEn bi hizkuntza ofizial izanik, herritarrei horietako bat aukeran emateko betebeharra dugu. Oraindik ere ideia hori mantentzen dut.

Kasu gehienetan, abokatuek gaztelaniaz pasatzen zizkidaten prestatuta zituzten galderak. Nik, ordea, euskaraz egin nituen. Hasieran kostata, baina behin martxa hartu nuenean, erosoago sentitu nintzen. Ez zidaten inolako arazorik ipini. Jakitun ziren itzulpenak ondo egiten zirela, zuzenekoak zirela, eta gero, epaia nik eman behar nuela.

Gogoan duzu Tolosako zure lehen epaiketa?

Ez. Baina gogoan dut une horretan hiru epaile ari ginela lanean Tolosan, eta hiruretatik ni nintzela euskaldun bakarra. Gainerakoek gaztelaniaz egiten zuten lan. Nire kasuan, naturaltasunez aritzen nintzen, logikoena zelakoan edo praktikotasunagatik.

Hona heldu aurretik, gaztelaniaz egiten zenuen lan?

Gaztelaniaz egiten nuen ia dena. Behin, 1987an, Bergarako epaiketa batean abokatu nintzela, nire bezeroak euskaraz egingo zuela aurreratu nion epaileari. Kataluniarra zen bera, eta lasai egoteko esan zidan, lagun bati deitu eta berak guztia itzuliko ziola; amaieran, epaia ere euskaraz eman zidan. Borondate kontua eta jarrera kontua izan zen.

Izapide gehienak gaztelaniaz egiten zirela kontuan izanda, lan handia izan zen Tolosako epaiketa hura prestatzea?

Ez. Zorionez, euskaraz eta gazte-



JOSETXO ARANTZABAL

laniaz antzera idazten nuen, baita hitz egin ere. Esamolde batzuen kasuan edo hitz teknikoe-kin topo eginez gero, hiztegi- edo zuzenbideari buruzko liburuetara jotzen nuen. Orduan, oraindik ez ziren eman hizkuntza juridiko bat adosteko urratsak. 1996 aldera, batzorde bat antolatu zuen Justizia Sailak, zenbait erakundeetako ordezkari-ekin. Urteen poderioz, eta askoren esfortzuari esker, modelo batzuk sortzea lortu da; garrantzitsua eta beharrezkoa izan da.

Aurrez egin al zen epaiketarik euskaraz Euskal Herrian?

Nik dakidala, Tolosakoa izan zen lehenengotarikoa. Gerora, ordea, Ordiziako Barruti Epaitegian, 1986 edo 1987 aldera, bertako epaileak epairen bat euskaraz egin zuela entzun nuen. Epaia euskaraz egin bazuen, pentsatzekoa da epaiketa bera ere hala egingo zuela. Bai kasu horietan, baita Tolosakoan ere, laburrak izan ziren epaiketak, momentuan egiten zirenak, eta pertsona gutxi hartzen zuten parte.

Eta zer suposatu zuen Tolosako kasuak?

Ez nuke jakingo esaten. Horrela-ko kasuek jarraipenik izan ezean, ez dute garrantzirik izaten. Eta nik dakidala, ez zuen izan. Azken urteetan, Bilbon ibili naiz lanean, eta Tolosan ez bezala,

hemen hiru epailearen artean ebatzi behar izaten dugu, eta inoiz ez da egokitu hirurak euskaldunak izatea. Pertsona baka- rreko aretoen kasuan, hala ere, helegite batzuei erantzuna euskaraz egiten jarraitu dut. Ez dira asko izan, baina pertsona batek salaketa euskaraz jartzen zuela edo itzultzailea eskatzen zuela ikustean, euskaraz egin izan dut. Zoritxarrez, hori zerbait anekdotikoa bezala geratu da, eta tristura eta mina ere eragiten dit.

Gerora, euskarak izan du presentziarik epaitegietan, edo oso puntuala izan da?

Zalantzarik gabe, oso puntuala izan da. Nik dakidanagatik, epaitegietara euskaraz iristen diren espedienteak udalerrri euskaldu-

netakoak dira. Eta gero, zer? Euskaraz egin arren, gaztelaniara itzultzen da dena. Epaileek gaztelaniaz ematen dute ebazpena, eta ondoren, berriro itzultzen da euskarara sententzia. Argi dago normalizazio txiki batetik ere oso urruti gaudela.

Eta zein izan daiteke aldaketa- rako bidea?

Epaiketa edo prozesu batean, epailea ez da partaide bakarra izaten. Nahikoa baliabide ditugu, baina jarrera aldaketa falta da, funtzionarioen aldetik nahiz epaile batzuen aldetik. Abokatu eskoletan euskaraz egiten dira klase praktikoak, beraz, bada garaia beraiek ere eskaerak euskaraz aurkezten hasteko. Geroz eta idazkari euskaldun gehiago dago; erabileran, ordea, hutsu- nea handia da.

Zein den bidea? Lezioak emate- a? Auskalo! Epaitegia eremu zaila edo erasokorra suertatu daiteke; askorentzat urruneko lekua da, arrotza, eta ondorioz beldurtuta joaten dira. Ez nuke esango arerioa denik hitz egokie- na, baina batzuetan hala senti- tzen dugu. Sarri esaten digute euskaraz egiteagatik desabantai- lak izango ditugula; horrek argi erakusten du euskaldunok ezer gutxi egin dugula epaitegietan gure hizkuntza eskubideen alde.

Beldur horretan jarri behar da fokua. Ni ez naiz inor inori errua botatzen hasteko. Guztiok gara errudunak zerbaitetan, eta errua duenak, aldatzeko ahalmena du. Errurik ez baduzu, beste batek izango du errua, eta orduan, horrek izango du ahalmen hori.

Euskaldunok ba al dugu ohi- tura epaiketa euskaraz izatea eskatzeko?

Ez. Intsumisioaren garaian, in- tsumisoe- k bazuten ohitura hori. Militanteak ziren, eta aldarrika- penak egiten zituzten. Gerora, oso puntualak izan dira eskae- rak. Nik ez dut inoiz jarrera akti- borik antzeman; ez da erraza, baina koordinazio lan bat egin beharko litzatekeela uste dut.

Betikoa
sagarriein
egindako sagardoa

EGUZKITZA
sagardotegia

Abenduak 3tik
aurrera zabalik!

Usabal Auzoa, 25 TOLOSA
Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: TEL: 943672613

Eneritz Maiz Etxarri

Uztailean martxan jarri zuten Auzolangin(l)tzaren proiektuaren barruan, auzolanarekin lotura duten Tolosaldeko esperientziak jasotzen hasiko da Tolomendi Landa Garapen elkarteak. Molde, arlo, tamaina eta estilo guztietako esperientziak bildu nahi dituzte, eta horretarako eskualdeko hogeita zortzi herrietara zabaldu dute prestatu duten galdetegia.

Galdetegia «laburra eta oso oso sinplea» dela esan du Imanol Olano Tolomendiko ordezkariak, eta bost minutu nahikoa dira erantzuteko. Modu horretan, Tolosaldean auzolanaren inguruan dagoen errealitatea azaleratu nahi dute, eta bildutako ezagutza eta eskarmentutik abiatuta, etorkizuneko egitasmoak landu nahi dituzte.

XXI. mendeko gizartearen beharrei erantzuneko dieten auzolaneko zein praktika jarri daitezkeen martxan ikusi nahi dute, eta gero eskualdean praktikara eramanez nahi dituzte. Berastegin eta Oresan saio bana egin dute, eta auzolanaren gaineko talde eragile bat ere sortu dute; «guk ez genuen nahi soilik Tolomendi, Eusko Ikaskuntza eta Huheziren proiektua izatea, baizik eta, eskualdekoa», kontatu du Olano.

Talde zabalago bat osatu dute eskualdeko hainbat eragilerekin eta era guztietako elkarteekin batera, erabakiak hartu, proposatu eta adosteko. «Talde motorra hori izango da», zehaztu du Olano, eta dinamizazio lana Tolomendi ari da egiten.

Tolosaldean auzolanarekin lotura duten esperientzia guztiak jasotzea nahi dute: «Era eta tamaina guztietakoak bildu nahi ditugu». Eta gaineratu du, «ea lortzen dugun».

Eskualdeko 28 udalei laguntza eskatu diete, beraien herrietako



Auzolangin(l)tzaren proiektua Berastegin aurkeztu eta praktikan jarri zuten, uztailean. I. SAIZAR

Arlo ezberdinetako auzolanak bildu nahi dituzte, galdetegi bidez

Tolomendik galdetegi bat zabaldu du eskualdeko elkarte, eragile eta mugimendu ezberdinei zuzenduta; bertako produktuen saski bat zozkatuko dute betetakoen artean

elkarte eta mugimenduetan zabaldu dezaten. Tolomendiren web orrian (*Tolomendi.eus*) ere badago eskuragarri. Laburra da, eta auzolanean aritzen direnek eta egitasmoari ekarpena egin nahi diotenek abenduaren 31 baino lehen bete beharko dute.

Normalean, auzolan tradizionaletan, udalek hamaiketakoak jarri ohi dute; «kasu honetan, bertako produktuekin egindako saski eder bat jarri dugu, galdete-

gia erantzuteko lana hartzen duten saski eder bat irabazteko aukera izan dezaten». Urteko azken egunean zozkatuko dute.

Herritarrei eta elkartei, orain artean irudikatu den auzolanaz gain, bestelakorik ere badela ikusarazi nahi diete: «Tradizionalki auzolana denok baserri bideak konpontzearekin edo ondare bat berreskuratzearekin lotzen dugu. Galdeketa honetan era guztietakoak jaso nahiko geni-

tuzke, norberak edo elkarteek auzolana dela pentsatzen duen edozein praktika, ariketa edo esperientzia».

«Askotan esaten dugu herriko festak auzolanean antolatzen direla, edo beste hainbat ekimen ere egiten dira auzolanean eta borondatez. Kultur asteak direla, zaintza arlokoak ere egiten dira askotan herri txikietan,... hainbat arlotan ari dira egiten eta herrietara iritsi nahiko genuke», dio.

Ahalik eta jende gehienarengana iristea dute helburu, eta ahalik eta auzolaneko esperientzia gehien jaso nahi dituzte; azken batean, alor diferenteetara iritsi nahi dute. Herrietan dauden elkarte ezberdinak, erretiro-dun edota emakumeen mugimenduak... «esku artean darabiltzaten esperientzia horiek jaso nahi ditugu».

EKIMEN XUMEENAK ERE BAI

Zumardiak egiten duen Olentzaroren basoa jarri du adibide moduan: «Boluntarioek egiten dute, eta hori auzolana da zalantzarik gabe. Gune guzti horietara iritsi nahi dugu, eta ez bakarrik jada instituzionalizatuta daudenetara». Ekimenik «xumeena» ere bildu nahi dute, eta horrekin saretea dute helburu.

«Gaur egun ez dakizkigun hainbat eta hainbat auzolaneko ekimen egiten dira eskualdean, eta bilketa lan hori oso aberasgarria eta interesgarria izan daitekeela uste dugu eskualde moduan, guztiontzako. Horrelako hainbat ekimen egiten direlako, eta ez daukagulako horien berri», gaineratu du Tolomendiko ordezkariak.

Bilketa egin ostean, 2022arekin batera, etorkizuneko egitasmoak landu nahi dituzte. «Proiektuaren izenak berak esaten duen moduan, auzolana iraganeko kontua ala etorkizuneko giltza da, eta noski, XXI. mendera ekarrita, eta XXI. mendeko gaur egungo gizartera egokituta izan behar du».

«Hortxe dago gakoa», azpimarratu du Olano. «Bilketa horrek erakutsiko digu gaur egun zein auzolan dauden, eta benetan zein beharrei erantzuten dieten. Agian ez direlako izango behar hain materialagoak, eta beharbada immaterialagoak izango dira, hau da, zerbaiten parte sentitzea, herri baten kide izatea, sentimendu kontua,...».

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Imanol Garcia Landa

Hard enduroko Espainiako Kopako laugarren proba jokatu zen Elgoibarren azaroaren 20 eta 21ean, eta Josu Artola amezketarrak lehen postua eta Alberto Aranburu tolosarrak hirugarrena lortu zuten senior mailan. Sailkapen orokorrari begira oso ondo jarri zaizkio kontuak Artolari, Espainiako Kopa irabazteko aukera asko baititu. Azken proba asteburu honetan izango dute Asturiasen, eta bertan zortzigarren egitea nahikoa du Artolak sari nagusia irabazteko.

Elgoibarko probaren zain egon dela aitortu du Artolak: «Denboraldiaren hasieratik sailkapenean aurrea egon naiz, baina Elgoibarko probaren zain nengoen, gu ondoen moldatzen garen eremua delako. Gainera euria egin zuen, lokatza zegoen, eta aste guztian probaren zain nengoen, sailkapeneko lehen postu hori finkatzeko asmoz». Amezketarrak espero zuen aurrealdean egotea, eta azkenean lehen postua eskuratu ahal izan zuen.

Lehen postuan jartzea, ordea, ez zen probaren hasieratik gertatu Artolarentzat. «Probaren egunean zirkuitua pixka bat lehortuta zegoen, eta hasieran sailkapen orokorrean bigarren postuan dagoen Moret kataluniarra aurretik jarri zen, eta bere atzetik Alberto [Aranburu] joan zen. Irteera txarra egin nuenez, kostatu zitzaidan aurreneko biak harrapatzea, baina haiengana iritsi nintzene-

Espainiako Kopa irabaztetik gertu dago Josu Artola

Pilotu amezketarrak Elgoibarren jokaturako hard enduroko senior mailako proba irabazi du; Alberto Aranburu tolosarra hirugarren izan zen proba berean



Josu Artola, ezkerrean, eta Alberto Aranburu, eskuinean, Elgoibarko proban. ATARIA



an, euria hasi zuen». Hori abantaila izan zen Artolarentzat, bazekielako kataluniarrak erritmoa jaitsiko zuela. Aranburuk eta Artolak aurrera egin zuten, eta ondoren Gas Gas talde bereko Peru Irazola batu zitzairen. Azken itzulian Artolak aukera izan zuen alde egiteko eta tarte atertzeko beste biei. Irazola izan zen bigarren, eta Aranburu hirugarren. Euriak asko gogortu zuen proba eta oso zaila jarri zen moto gidarientzako.

Bere aldetik, Aranburu «oso gustura» geratu zen egindakoarekin. Larunbatean denbora onena egin zuen eta gero igandeko irteerarako lehen postuan jarri zen. «Probaren egunean ondo atera nintzen eta lehen bi itzulietan lehen eta bigarren posturako ibili nintzen. Pena da bigarren itzulian arazo mekaniko bat izan nuela, baina behintzat bukatu ahal izan nuen». Tolosarra bosgarren doa sailkapen orokorrean eta gertu ditu hirugarren eta lau-

garren postuak. Arnedoko proba ez zuen bukatu ahal izan, motoreko pieza bat puskatu zitzaiolako, bestela aurrerago egongo zen sailkapenean. Asteburuan izango den azken proban, ahal duen posturik onena lortzeko asmotan joango da, baina «lasai» ere ariko da: «Ondo ateratzen bada, ondo, eta gaizki ateratzen bada, ba horrela izango da. Azkenean hurrengo egunean lanera joan behar dugu. Ez gara honetaz bizi, eta disfrutatzeraz goaz».

Elgoibarko probaren ondoren, Artolak hamahiru puntura du bigarren sailkatua. Asturiasen ere eremua aldeko izatea espero dute eskualdeko pilotuek, euria egitea eta lokatza izatea espero baita. Artola postu ona bat egitera joango da, helburua txapelketa irabaztea baita. «Aurretik Espainiako txapeldun geratu izan naiz cross country modalitatean, eta enduron bigarren egin nuen, baina hard enduron lehiatzen ari garen mailan, bi gidari profesionalak kenduta, onenak gaude, eta hor txapeldun izatea niretzat ikaragarria izango litzateke», esan du amezketarrak. «Jende asko dago baliabideak dituenak eta asko entrenatzen duena, baina gu ez gara horretarako bizi eta guretzako afizioa da».

Hard enduron, baino maila bat beherago, trofeo mailan hain justu, eskualdeko pilotuak ere izan ziren Elgoibarko proban lehiatzen. Senior mailan bigarren izan zen Andoni Elustondo tolosarra eta junior mailan lau garren amaitu zuen Aritz Murua abaltzisketarrak.

Beste pauso bat eman du Tolosaldea IKTk

Absolutu mailako Espainiako Txapelketan Tolosaldea IKTk hamar igerilari izan dira; Nahia Garridok sekulako marka egin du

I. Garcia Landa

Tolosaldea IKTk hamar igerilari izan dira absolutu mailako Espainiako Txapelketan. Asteburuan egin zen, Mallorcan, eta taldetik orain arteko igerilari kopuru handienak parte hartu zuen. Igerilariekin joan zen txapelketara Joseba Zubeldia entrenatzailea eta talde bezala izandako parte hartzea nabarmendu du: «Pozik gaude eraman dugun igerilari kopuruarekin, eta azken urte hauetan erakusten ari garen bilakaeran beste pauso bat dela uste dugu». Ehundik gora taldek parte hartu zuten, eta Tolosaldea IKTk emakumezkoetan 24. bu-

katu zuen eta gizonetzkoetan 30. postuan.

Norbanako emaitzei begiratu eta, Nahia Garridok lortutako marka nabarmendu behar da. 200 metro bizkar estiloan 14 urteko Espainiako marka bi aldiz hobetu zuen Garridok, 2.10,42ko denboran utziz. Gainera, finalean bosgarren postua lortu zuen, bere aurkariak maila handiko igerilari eta txapeldunak izanik. Horrez gain, 400 metro estiloan 100 metro bizkar estiloan 14 urteko Euskadiko errekorra egin zituen. Azken proba horretan, 100 metro bizkarrean, gainera, B finalerako sailkatu zen eta irabazi

egin zuen, sailkapen orokorrean bederatzigarren geratuz.

Bere aldetik, Nahia Sarasolak Euskadiko errekorra egin zuen 15 urteko mailan 100 metro tximeletako proban. Eneko Garmendiak bere markarik onenak egin zituen 50 eta 100 metro bizkar estiloetan, Euskadiko errekorretik nahiko gertu geratuz. Parte hartu zuten beste igerilariak Maddi Barriola, Nahia Cristobalena, Markel Garmendia, Enaitz Goñi, Kepa Oiartzun, Unai Zubeldia eta Imanol Ezeiza izan ziren.

Bestalde, erreleboetan ere parte hartu zuten, gizonetzkoetan 4x100 metro estiloetan eta 4x50



Espainiako Txapelketara joan ziren Tolosaldea IKTk kideak. ATARIA

libreetan, eta emakumezkoetan 4x100 metro estiloetan. «Mutiletan aurretik parte hartu genuen erreleboren batean, baina lehen aldia izan da bai mutiletan zein nesketan erreleboa izan dugula,

eta oso pozik gaude horregatik», esan du entrenatzaileak.

Hurrengo erronka garrantzitsua Euskal Herriko Kopa izango dute, abenduaren 11 eta 12an Irunen jokatu dena.



ASTEAZKENA, 2021EKO ABENDUAK 1
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraui, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

Utzi zu zaintzen, gozatu bitartean

Urtebete darama Eider Bio Estetika zentroak Gernikako Arbola lorategiko 3. zenbakian; produktu naturalekin egiten du lan, larruazala zainduz.

Hamabost urteko esperientzia dute Eider Bio Estetika zentroan. Eider Balda estetizistak Tolosako Laskurain kalean eman zituen lehen urratsak zentro berriarekin, eta duela urtebetetik Gernikako Arbola lorategiko 3. zenbakian du zabalik lokala, bere zerbitzua emateko.

Beste estetika zentroetatik bereizten duen ezaugarri bat badu Eider Bio Estetikak. Izenak dioten moduan, tratamendu guztietan produktu naturala erabiltzen du, «gorputzaren oreka eta armonia bilatuz». Produktu naturalak gorputzean erabiltzeak «onurak» besterik ez dituela esan du, «bai azalarentzat, eta baita ingurunearentzat ere».

Orain arte, bakarrik egin izan du lan Eider Baldak, baina beste langile bat hartu nahi luke, zerbitzu osatuagoa emateko. «Estetizista den norbaitek proiektua ezagutu eta nirekin lan egin nahiko balu, ateak zabalik izango ditu».

Zabala da eskaintzen duen zerbitzua. Estetika zaintzeaz gain, masajeak eta osasun terapiak eskaintzen ditu, oreka fisikoa eta bizi kalitatea hobetzen laguntzen dutenak. Bio estetikak ematen duen aukera desiratuena da hori bezeroentzat, Baldaren arabera. «Masaje eta terapia horiei esker, energia handitu, estresa gainditu eta arazo fisikoak

konpondu ahal izango dituzte bezeroek», azaldu du.


Estetikari dagokionean, aurpegiko zein gorputzeko estetika zaintzen du. Aurpegiko kasuan, garbitasuna eta larruazalaren hidratazioan jartzen du azpimarra. «Bezeroaren larruazalaren arabera, tratamendu pertsonalizatuak proposatzen ditut». Aurpegia, lepoa eta eskotea higienizatu eta hidratatzen ditu, oxigenoa emanez. Horrela, azala argitsua goa, leunagoa eta tonu uniformearekin uztea du helburu.

Gorputzeko estetika ere fin

Tratamendu guztietan produktu naturalak erabiltzen ditu «gorputzaren oreka eta armonia bilatuz»

Estetika zaintzeaz gain, masajeak eta osasun terapiak eskaintzen ditu, bizi kalitatea hobetzeko

zaintzen du. Larruazaleko afekzio espezifikoak tratatzeaz gain, hainbat tratamendu eskaintzen ditu: *peeling*-a, gorputzeko bilgarrak masajeak barne, zelulitisaren aurkako tratamenduak besotan, bularretan, sabelean, gluteotan edota hanketan, eta presoterapia ere erabiltzen du, besteak beste, «astuntasuna



Eider Balda estetizista, Gernikako Arbola lorategietan duen zentroko sala batean. I. S. A.

arindu, zirkulazioa hobetu eta drainatze linfatikoa egiten da, orokorrean, gorputzeko ongizatea bilatzeko».

Depilazioan ere badu aukera. Diodo laserra erabiltzen du bate-tik, gizon zein emakumeentzat. Emaizta «eraginkor eta iraunkorra» lortzen du, eta «ahalik eta segurtasun handienarekin» egiten du lan, «erosotasunez eta minik

Diodo laserra eta hari bidezko depilazioa eskaintzen ditu, «erosotasunez eta minik eman gabe»

Bere buruarentzat denbora hartuz, oreka hori mantentzen ahalegintzen dira Eider Bio Estetikan

eman gabe». Diodo laserra urteko edozein garaitan egin daiteke.

Bestetik, ohiko argizariarekin ere egiten du depilazioa, aurpegiaren zein gorputzean. Kasu honetan, Eider Bio Estetikak badu bereizgarri bat: bio depilazioa egiten du, azukre pasta baten bidez. Berak sortzen du pasta etxean, ezta, limoia eta azukreare-

kin. Produktu natural horren bidezko depilazioa «metodo leun eta eraginkorrenetako bat» dela ziurtatu du: «Ez da gainerako argizariak bezala hainbeste itsasten azalera, ileari bakarrik eusten dio, beraz, ez du azala narritatzen». Metodo horrekin zenbat eta gehiagotan depilatu, geroz eta ile gutxiago ateratzen dela esan du.

Horrez gain, hari bidezko depilazioa ere egiten du. Bide horretan, bekainak diseinatu eta depilatzen ditu, bekainen berezko forma mantendu eta aurpegiaren formaren arabera bekainen forma egokituz. Hariaren bidez, pasaldi bakar batean ile guztiak erabat kentzeko aukera izaten dela dio, eta kontatu duenez, bekainak «zehatzagoak eta dotoreagoak» lortzen dira. Larruazal sentikorra duten pertsonentzat teknikarik gomendagarriena dela dio.

ZERBITZU GEHIAGO

Eskuetako manikurak eta oinetako pedikurak ere egiten ditu, azkazalak txukundu eta garbitzearekin batera. Esmalte naturalen bidez egiten ditu horiek, «azkazalek arnasa hartu deza-

ten». Esmalte arrunta eta erdi iraunkorra dauzka, bezeroaren gustuen arabera.

Kolore pixka bat hartu nahi duenarentzat ere badago aukera zentroan. Brontzeatuak egiten ditu, azukre kanaberarekin. Eskaintza naturala da hau ere. «Momentu batzuetarako ondo etortzen da, teknika azkarra da, kolore beltzarana lainoztatzen du azalean eta zortzi ordutara agertzen da kolorea». Gutxi gorabehera bi asteko iraupena izaten du. Gogorarazi du ez diola kalterik egiten azalari, argi artifiziala erabiltzen duten beste teknikekin alderatuta.

Esperientzia berri bat nahi duenak badu lekua Eider Bio Estetikan. «Bakoitzak bere buruarentzat denbora hartu behar du, eta gure zentroan oreka hori mantentzen eta bizi kalitatea hobetzen laguntzen dugu», dio. «Utzi zu zaintzen, gozatzen duzun bitartean, eta etorri ezagutzera».

EIDER BIO ESTETIKA

Helbidea: Gernikako Arbola lorategiak 3, Tolosa.

Telefonoa: 943 1190 78.